

GLOBAL LEHIAN 2018 PROGRAMA

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN NAZIOARTEKOTZEA LAGUNTZEA

HELBURUA: banaka nahiz lankidetzan jarduten duten Enpresa Txiki eta Ertainen (ETE) nazioartekotzea laguntzea.

ONURADUNAK:

Agindu honetan ezarritako laguntzak eskuratzeko aukera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten eta banaka nahiz lankidetzan jarduten duten mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek (ETE), beti ere nazioartekotze plan bat indarrean izanez gero.

Lankidetzeta-modalitatean egindako kanpo-sustapeneko jardueratzat hartzen dira gutxienez euskal bi enpresak edo erakundeak egindakoak. Agindu honetan independenteak eta elkarrekin lotuta ez dauden, eta kanpo-merkatuetan elkarrekin jarduteko konpromisoa hartzen duten ETEak parte hartu dezakete, arriskuak elkarrekin hartuz eta kostuak beren gain hartuz, uste dutelako beren ekintza-sinergiak direla eta abantailak ekar diezazkioketela elkarri.

DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK:

Hasteko etapa: Etapa horretarako laguntzak eskura ditzakete banakako nahiz lankidetzako modalitatean jarduten duten enpresek eta erakundeek, eskaera egiteko unean profil hau dutenak: barne-merkatuan oinarritzen direnak, esportazio-jarduerarik ez dutenak edo hasi berria dutenak (salmenta guztien %5 baino gutxiago), eta kanpo-merkatuetara hedatzeko erabakia hartu dutenak. Hasteko etaparako laguntzak jaso ahal izango dituzte, halaber, merkatu jakin batzuetan sendotzeko etapa gaingitu duten sustapen-taldeek eta partzuergoek, asmoa dutenak beste merkatu batzuetara zabaltzeko, baldin eta merkatu horietara enpresa parte-hartzaileek egiten dituzten esportazioen zenbatekoa ez bada guztien artean fakturatzan dutenaren %5era iristen.

Sendotzeko etapa: Etapa horretan, esportazio-partzuergoak edo -taldeak nazioartekotze-plan bat jartzen du abian, esportazio-jardueran hasi berria izatetik erregulariki esportatzen duen esportatzaile izatera igarotzeko. Horretarako, esportazioen bezero-zorroa sendotzen eta handitzen du, eta helmuga-merkatuak dibertsifikatzen ditu. Nazioartekotze-jarduera, eskuarki, jatorrizko enpresatik edo erakundetik bideratzen da, ez baitu izaten ordezkartzarik edo ezarpenik atzerrian. Bestela, enpresa edo erakunde bat sendotzeko etaparako laguntzen onuradun izan daiteke, baldin eta haren esportazioen bolumena guztizko fakturazioaren %5etik %50era artekoa bada.

Ezarpenetarako etapa: Hiru ezarpen mota bereizten dira:

a) **Merkataritza-ezarpenak atzerrian:** Enpresak atzerrian dituen establezimendu filialak edo sukurtsalak dira –fisikoak edo birtualak–, nazioarteko merkatu bati edo batzuei arreta emateko, alderdi komertzialetan.

b) **ekoizpen-ezarpenak atzerrian:** Atzerrian fabrikazio-proiektu bat gauzatzeko ezartzen diren establezimenduak dira, bai instalazio berriak abian jarri, bai jada bazeuden enpresetako partaidetzaren bidez.

c) Zerbitzu ezarpenak atzerrian: Kanpo-merkatu batean ezartzen diren zerbitzu-enpresen establezimenduak dira, bai instalazio berriak abian jarri, bai jada bazeuden enpresetako partaidetzaren bidez

Talentua sustatzea eta baliatzea: Etapa horretarako laguntzen helburua da Euskadin egoitza duten enpresetan eta erakundeetan nahiz helmuga-herrialdeetako ezarpenetan giza kapitala sustatzea, kanpo-merkataritzan eta enpresa nazioartekotuen kudeaketan adituak diren langileen bidez.

GASTU HAUTAGARRIAK:

Hasteko etapa

- Nazioartekotze-plana egitea. Diagnostikoa eta/edo nazioartekotze-plana egiteko kanpoko aholkularitzaren kontratazioa diruz lagunduko da.
- Ekintza goiztiarrak; bidaiak eta/edo bisitak azoketara, eta agendak egitea. Bidaiei dagokienez, bidaia-zorroak diruz lagunduko dira; helmuga kontuan hartuta kalkulatu da zenbatekoa. **7 bidaia-poltsa, aurkeztutako eskabide bakoitzeko.**
- Lankidetzaren modalitatean jarduten den enpresen kasuan, aurrez aipatutako kontzeptu horiez gain, diruz lagunduko dira bideragarritasunaren azterketa eta eraketa-gastuak ere.

Sendotzeko etapa

- Merkatu-prospekzioarako eta/edo bezero edota hornitzaile potentzialak diren enpresekin harremanak izateko bidaiak, eta bisitak azoketara. Bidaia-zorroak diruz lagunduko dira.
- Atzerriko bezero eta/edo hornitzaile potentzialak diren enpresei egindako gonbidapenak. Gehienez 9 gonbidapen egin ahal izango dira eskabide bakoitzeko, betiere hilabete desberdinetan egiten badira. Ostatu eta garraio gastuen muga 600€koa izango da.
- Prospekzio-bidaiak lankidetzan. Prospekzio bidaiatzat hartzen da salmenta eta sustapen taldeko enpresa batek edo batzuek egiten dutena, taldeko enpresa guztien ordezkari gisa.
- Zuzeneko misioa, lankidetzan. Itunean parte hartzen duten enpresa batzuek edo guztiek egindako misioa da. Prospekzio-bidaia egin ordez zuzeneko misioa egiteko arrazoiak justifikatu egin beharko dira.
- Alderantzizko misioa, lankidetzan: atzerriko erosleei edo prospekziogileei egindako gonbidapena, lankidetzan jarduten duten enpresak bisitatzeko. Ostatu eta garraio gastuak diruz lagunduko dira; laguntzen zenbatekoa.
- Kanpoko azoketan parte hartzea, stand bat jarri, produktuak aurkezteko: zoruaren edo aretoaren alokairua, standaren apainketa, bidaia-zorroak eta azokan parte hartzeak sortzen dituen berezko beste gastu batzuk. Lankidetzaren modalitatean jarduten duten enpresen kasuan, azoketako parte-hartzeak laguntza jaso ahal izateko beharrezkoa da standa denen artean jartzea eta produktuen aurkezpena elkarrekin egitea: zoruaren alokairua, standaren apainketa, bidaiak.
- Sustapen-materiala: gutxienez atzerriko hizkuntza batean egindako katalogoak, liburuxkak, bideoak eta abar, edozein euskarritan, barnean hartuta Internet. Lankidetzaren modalitatean jarduten duten enpresen kasuan, laguntza jaso ahal izateko elkarrekin egindako sustapen materiala soilik hartuko da kontuan.
- Publizitatea: atzerriko komunikabideetarako (egunkariak, aldizkariak, irratiak, telebistak, etab.) eta Internetetarako publizitatea sortzea eta haietan iragartzea.
- Esportazio-partzuergoetan, aurrez deskribatu diren lankidetzaren modalitateko gastu horiez gain, partzuergoaren funtzionamendu-gastuek ere laguntza jaso ahal izango dute: hau da, alokairuak, bulego ekipamenduek, eta partzuergoaren administrazio funtzionamenduarekin zuzenean lotu tako kanpoko zerbitzu profesionalak.
- Ezarpen proiektu potentzialen bideragarritasunaren azterketa.
- Beste sustapen, ikerketa eta azterketa jarduerak batzuk, beharrezkoak direnak nazioartekotze planean zehaztutako merkatuetan sartzeko.

5 bidaia poltsa herrialdeko, eta, gehienez, 3 herrialde aurkeztutako eskabide bakoitzeko.

Ezarpenetarako etapa

- Eraketa gastuak: eskriturak, erregistroak, administrazio-baimenak, lizentziak eta jardueraren hasieran behingoan soilik egiten diren beste batzuk. Zuzenean kanpo ezarpenen etapan sartzen diren enpresek eta erakundeek, gainera, bideragarritasun-azterketarako laguntza ere jaso ahal izango dute.
- Egitura gastuak: lokalaren alokairua, bulego ekipamenduak, eta ezarpena abiarazteko beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk.
- Jatorrizko enpresaren eta ezarpenekoaren arteko bidaien gastuak. Bidaia zorroetarako hornidurak eta eskaera bakoitzeko emango den gehieneko zorro kopurua. 7 bidaia-poltsa, enpresa nagusiaren eta ezarritako enpresaren artean aurkeztutako eskabide bakoitzeko. Deialdi honetan, enpresa nagusia edo ezarritako enpresa kokatuta dauden herrialdeak baino ez dira onartuko jatorri-herrialdeetatik edo xede-herrialdeetatik.
- Ezarpenarekin lotutako sustapen-gastuak: katalogoak, azoketan parte hartzea, webguneak, publizitatea, produktua homologatzeko gastuak eta marka erregistratzekoak.

Talentua sustatzea eta baliatzea

- Teknikari espezialistak kontratatzeak hautaketa-prozesuaren gastuak.
- EAEn egoitza duen enpresan edo erakundearen nazioartekotze-gaietan adituak diren teknikari espezialisten kontratazio berriei dagozkien soldaten kostu gordina. Erakundeek nazioartekotze jardueraz arduratuko diren langile espezialistak hartzea diruz lagunduko da.
- Kanpo ezarpenetan nazioartekotze gaietan adituak diren teknikari espezialisten kontratazio berriei dagozkien soldaten kostu gordina.
- Esportazio partzuergoetan, kudeatzailearen soldataren kostu gordina.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Modua	Hastea	Sendotzea	Ezartzea	Talentua sustatzea
Bakarka	40% 20.000,00 €	40% 30.000,00 €	40% 40.000,00 €	50% 20.000,00 €
Esportazio Kontsurtzioa	50% 40.000,00 € 14.000,00 €/ partaideko		-	50% 30.000,00 €
Salmenta eta sustapen taldea	50% 40.000,00 € 12.000,00 €/ partaideko		-	-

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 09:00etan; amaitu, berriz, **2018ko martxoaren 23an 12:00etan amaituko da**. Hasierako etapan, eta nazioartekotze-plana prestatzeko laguntzak eskatu nahi izanez gero, **2018ko apirilaren 26an 12:00etan** amaituko da aurkezteko epea.

Eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko beste edozein agiri era telematikoan bete beharko da, eta honako helbide elektroniko hauetan horretarako ezarritako atalean aurkeztuko da:

http://www.euskadi.eus/dirug_laguntza/2018/global-lehian-2018/web01-s2ekono/eu/